


Euskal AEko BPGk urte arteko %0,8ko hazkundera izan zuen 2010eko laugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean hazkundera positiboa da, %0,2

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko BPG %0,8 hazi da 2010eko laugarren hiruhilekoan, 2009ko aldi berarekin alderatuz gero. Tasa bi hamarren hazi da, aurreko hiruhilekoko hazkundearekiko. Espainiako ekonomia urte artean %0,6 hazi da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, Euskal AEko BPG %0,2 hazi zen, aurreko hiru hiruhilekoan inongo hazkunderik ez izan ondoren. Hiruhilekoen arteko aldakuntza hau Espainiako ekonomiak edukitakoaren antzekoa izan da.

1 grafikoa. BPG m/p Hazkunde-tasak (%)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. EIN

Eskaintzaren ikuspegitik, hiruhileko honetako urte arteko hazkundera industriak eta zerbitzuek jokaera hobea izan dutelako gertatu da. Zerbitzuetan, bilakaera positiboa izan da bai merkatukoetan, bai ez-merkatukoetan. Eraikuntzan oraindik ere negatiboa izan zen jarduera, baina aurreko hiruhilekoan baino apalkiago.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2009	2010	2009	2010			
			IV	I	II	III	IV
Nekazaritza eta arrantza	3,6	-2,8	-13,0	-26,6	-4,2	18,3	8,2
Industria	-12,7	0,4	-9,4	-2,3	0,9	1,6	1,6
Eraikuntza	-3,6	-5,9	-1,1	-5,4	-5,5	-6,6	-6,2
Zerbitzuak	-0,2	0,8	-0,8	0,5	0,9	0,7	1,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,0	2,1	-0,9	-0,1	2,2	3,6	2,7
BPGda merkatuko preziotan	-3,8	0,3	-3,1	-0,8	0,5	0,6	0,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektoreak urte arteko hazkunde nabarmena izan du (%8,2), baina ez aurreko hiruhilekoaren (%-7,7) aldean.

Industriak eutsi egin zion aurreko hiruhilekoan izandako urte arteko hazkundeari (%1,6); hamarren bat jaitsi zen hiruhilekoen artekoa (%0,5) aurreko hiruhilekoaren aldean. 2009an eta 2010eko lehen hiruhilekoan jaitsiera handiak izan ziren bai urte artekoan, bai hiruhilekoen artekoan; ondoren, industrian bilakaera positiboak izan ditugu hiru hiruhilekoz jarraian, bai urte artekoan, bai hiruhilekoen artekoan.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2009	2010			
	IV	I	II	III	IV
Nekazaritza eta arrantza	0,9	-7,5	20,5	5,2	-7,7
Industria	0,5	-0,4	0,9	0,6	0,5
Eraikuntza	-0,3	-4,8	-0,2	-1,3	0,1
Zerbitzuak	0,3	0,1	0,3	0,0	0,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	1,1	0,2	2,1	0,1	0,3
BPGda merkatuko preziotan	0,1	0,2	0,3	0,0	0,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzak berriz izan du urte arteko tasa negatiboa (%-6,2); aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Jaitsiera bai etxegintzan, bai obra zibilean gertatu da. Hiruhilekoen artean hamarren bat positiboa dugu; aurreko hiruhilekoan %1,3 negatiboa izan zen. 2007ko bigarren hiruhilekotik, hiruhilekoen arteko lehen datu positiboa da.

Zerbitzuen sektoreko bilakaera globala apur bat bizitu da urte arteko eta hiruhileko arteko hazkunde-tasetan. Urte artekoan %1,1 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago, eta hiruhileko arteko terminoetan bilakaera positiboa izan zuen, %0,6; aurreko hiruhilekoan ez zen inongo hazkunderik izan.

2010eko laugarren hiruhileko honetan, **Merkatuko zerbitzuen** bilakaera zertxobait positiboagoa izan da aurreko hiruhilekoan baino, bai urte artean, bai, bereziki, hiruhileko artean. Urte arteko hazkundeak %0,9 izan da, aurrekoan baino hamarren bat gehiago; hiruhileko arteko hazkundeak 7 hamarren izan da, hirugarren hiruhilekoan hamarren bat jaitsi zelarik.

Ez-merkatuko zerbitzuek hazkunde-tasa positiboak izan dituzte, bai urte artekoan (%2,0), bai hiruhileko artekoan (%0,4).

Balio Erantsia aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago (%0,6) hazi zen urte artean eta hamarren bat gehiago (%0,2) hiruhileko artean.

Eskariaren aldetiko bilakaera ekonomikoan izandako gertaerarik nabarmenena kanpo-sektorearen jokaera ona izan da; Barne-eskaria %0,1 hazi da, aurreko hiruhilekoan bezalatsu.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2009	2010	2009	2010			
			IV	I	II	III	IV
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	-3,7	0,8	-2,5	-0,6	1,4	1,2	1,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	3,7	1,3	2,4	0,5	1,8	2,1	1,0
Kapital-eraketa gordina	-15,4	-6,0	-14,6	-9,8	-6,8	-4,0	-3,2
Barne-eskaria	-5,7	-0,7	-5,0	-2,6	-0,5	0,1	0,1
Guztizko esportazioak	-18,4	8,5	-15,7	1,1	11,1	9,1	12,8
Guztizko inportazioak	-20,1	6,5	-17,7	-2,4	8,9	8,2	12,2
BPGda merkatuko prezioetan	-3,8	0,3	-3,1	-0,8	0,5	0,6	0,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Familia-etxeen azken kontsumoaren gastua (Kontsumo Pribatua) urte arteko %1,2ko tasaz hazi zen, aurreko hiruhilekoan bezalaxe; hiruhileko artean, %0,5 hazi zen, hirugarren hiruhilekoan baino hobeto, orduan %0,9 jaitsi baitzen.

Kontsumo Publikoak (Herri administrazioen azken kontsumoko gastua) neurritsuago jokatu du. Laugarren hiruhileko honetan urte arteko tasa %1,0 da eta hiruhileko artekoa %-0,6.

Kapital eraketa gordinaren (Inbertsioaren) bilakaera berriz ere negatiboa izan da, %3,2, urte artean; jaitsiera aurreko hiruhilekoko baino zortzi hamarren txikiagoa da. Hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan da (%0,8) aurreneko aldiz 2008ko lehen hiruhilekotik.

Kontsumo publikoaren eta pribatuaren eboluzioak, Kapitalaren eraketa gordinak eta horien pisu erlatiboak zehazten dute **Barne Eskariaren** jarrera. Hazkunde-tasa positiboa du (%0,1) urte artean, aurreko hiruhilekoan bezalaxe. Hiruhileko arteko hazkundeak (%0,1) zazpi hamarrenez egin du hobera aurreko hiruhilekoaren aldean.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2009	2010			
	IV	I	II	III	IV
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	0,5	0,6	1,1	-0,9	0,5
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	0,5	-1,8	1,2	2,2	-0,6
Kapital-eraketa gordina	-0,2	-1,4	-1,6	-0,9	0,8
Barne-eskaria	0,2	0,4	0,2	-0,6	0,1
Guztizko esportazioak	-2,4	6,2	5,7	-0,4	0,9
Guztizko inportazioak	-3,1	7,8	4,5	-0,9	0,5
BPGda merkatuko preziotan	0,1	0,2	0,3	0,0	0,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpoko sektoreari dagokionez, BPGren bilakaerari egin dion ekarpen positiboa da esanguratsua. Urte artekoan, esportazioen bilakaera zabaltzaileagoa (%12,8) izan da inportazioena baino (%12,2) eta munduko gainerakoekiko saldoa hobetu egin da. Hauxe gertatzen da hiruhilekoen arteko tasetan ere: esportazioak gehiago hazten dira (%0,9) inportazioak (%0,5) baino.

Lanpostuak bost hamarrenez jaitsi dira urte artean eta hamarren batez hiruhileko artean; aurreko hiruhilekoko tasak pittin bat egin du txarrera.

Nekazaritzak, industriak eta eraikuntzak enplegua galdu dute urte arteko tasan eta hiruhileko artekoan; zerbitzuen sektoreak joera hobea izan du.

BPGren bilakaeran, Araba ibili da hoberen urte arteko tasetan, %1,4 hazi da; Bizkaian %0,8 eta Gipuzkoan %0,6. Hiruhileko artean, Arabak %0,9, Bizkaiak %0,2, Gipuzkoak %0,1.

Urtean zehar BPG %0,3 hazi zen, eta enplegua, jaitsi (%-0,8)

2010.eneko globalean, eskaintzatik, **Industria** %0,4 hazi denez eta **Zerbitzuak** %0,8, hazkunde-tasa positiboa da. 2010eko **Eraikuntzaren** bilakaera negatiboa izan da, (%-5,9); baita **Lehen** sektorean (%-2,8) ere; industria eta zerbitzuen bilakaerei kontra eginez. **Produktuen gainera zerga garbiak** 2010eko globalean %2,1 hazi da

Gastuaren aldetiko analisisian, **Barne Eskariaren** jaitsiera dago, %0,7, eta BPGren %0,3ko hazkunde; beraz, urtean gure kanpo-saldoaren ekarpen positiboa dago. Barne eskariaren jaitsiera 2010ean (%-0,7) txikiagoa izan da 2009koa (%-5,7) baino.

Barne Eskariaren bilakaera **Familia-etxeen Azken Kontsumoko Gastuak** (%0,8), **Herri Administrazioetako Azken Kontsumoko Gastuak** (%1,3) eta **Kapital Eraketa Gordinaren** jaitsiera nabarmenak (%-6,0) erabaki dute.

Langile okupatuak %0,8 jaitsi ziren batez beste; jaitsi, sektore guztietan, zerbitzuetan (%+0,9) izan ezik. Enplegua, batez ere, eraikuntzan (%-5,8) eta industrian (%-3,5) jaitsi zen. Lehen sektorean %-1,2.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua](#)